

Donostia, 2020ko uztailaren 3a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### ZALDUNBORDAKO "OUTLET"-REN GAINEKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Zaldunbordako "outlet"aren gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILERAN EZTABAIDATZEKO.

### JUSTIFIKAZIOA

Hondarribiko udal gobernuak, ekainaren 26an, 1134/2019 Alkatetza Dekretua igorri zuen. Dekretu horretan baimena ematen du Higertoki SL enpresak sustatuko plan partziala hasiera batean onesteko, Zaldunborda Gainako partzelazioari dagokionez. Hondarribiko udal gobernuak, horrenbestez, Outlet Village bat eraikitzea erabaki du Zaldunbordako lur kutsatuetan. Proiektuari oniritzia eman zaio, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 27an merkataritza gunek berriak eraikitzea mugatzen duen lurralde antolamenduko legea aho batez onartu baino egun bat lehenago.

100 saltoki baino gehiago, 28.000 metro karratuko instalazio bat, 133 milioi euroko inbertsioa eta 1.800 autorentzako aparkalekua. Outlet herri bat, estatuan Bartzelonak eta Madrilek soilik dituztenak bezalakoak. Proiektuaren ondorio negatiboen artean, besteak beste, eremu horretatik hurbil dauden saltokiei kalte konponezina egitea dago, 250 km-ko inguruan, eta ingurumenari larriki eragingo dio.

Dendartean Gipuzkoako hurbileko saltokien aldeko elkarteek taldeak hau baieztatu du: "Europar eginiko ikerlan guztiek aho batez adierazten dute eredu horiek sortzen dituztenak bezalako bi enplegu suntsitzen dituztela. Gainera, enplegu prekarioa bultzatzen eta kompetentzia desleiala sustatzen dute, zentro horiek ez baitute gure lan akordioa aplikatzen, estatukoa baizik". Bestalde, Gipuzkoako merkatarien presidentek uste du hiriak garatzeko kaltegarriak direla: hirietako inbertsioak uxatzen dituzte eta hiriok basamortu bihurtzen, interes orokorraren aurkako hirigintza da".

Zaldunborda Jaizkibel mendiaren magalean dagoenez, proiektuak landazabaleko paisaia suntsitzea ekarriko luke, eta Natura 2000 Sarea babesten duen eremua arriskuan jarriko, Bidasoaldeko Lagunak eskualdeko talde ekologistaren ustez, (Zaldunborda) "Jaizkibel eta Aiako Harria lotzen dituen korridore ekologikoaren barruan dago. Horregatik, Jaizkibel arriskuan dago, Aiako Harriarekin lotuta egon behar duelako, eta landazabalak ezinbesteko garrantzia du horretan. Hori guztia galdu egingo litzateke eta itzulezina izango litzateke, interes ekonomiko partikularren mesedetan".

Laburbilduz, Irungo Udalbatzan 2017ko maiatzean aho batez adierazi zen moduan, proiektuak ondorio oso kaltegarriak izango ditu ekologiaren, mugikortasunaren eta ekonomiaren arloetan.

Hondarribiko makrooutleta 100-115 luxuzko dendek osatuko lukete, eta dagoeneko bezeroei beren eskaintzak erakusteko espazioak zozkatzen ari dira. Merkatarien elkarteak errezeloz eta nolabaiteko gaitzespenez begiratzen dio proiektu hori martxan jartzeari, haren jarduerak ondorio negatiboa izango bailuke tokiko merkataritzan eta, zehazki, gure hirian. Gainera, zentro horietan jendaurreko ordutegia astelehenetik igandera 10:00etatik 22:00etara izaten da, ia-ia urteko 365 egunetan. Donostiako merkataritzari serioski eragingo dio makrooutlet hori egoteak, ezingo baitio aurre egin negozio eredu irrazional horri. Erakundeok aurrea hartu diezaiogun, kaltea konpondu behar izan baino lehen.

Hori dela eta, hauxe da guk dakargun

#### MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsiki eskatzen dio Hondarribiko Udalarari eska diezaiola Zaldunbordako outlet proiektua kentzeko.

Aitzole Araneta Zinkunegi,  
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea